

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

704

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 31koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2023. urtean gehienez emango diren diru kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2023. urterako dagokion aurrekontu-muga.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean honako baliabide hauek arautzen dira: bazterkeria-arriskua prebenitzekoak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeriako egoerak arintzekoak, eta herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea erraztekoak; baliabide horien artean daude gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL).

Larrialdiko laguntzaren kontzeptuaren gakoa da, hain zuzen ere, kanpoko edo ustekabeko arrazoiak tarteko, une jakin batean (aldi baterako) baliabide ekonomikorik ez izatea edo urriak izatea premia larriko egoera bati aurre egiteko. Egoera horiei erantzun egin behar zaie herrialdean dagoen ongizatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-sarrerak bermatzeko errentaren laguntzen gehieneko muga arabera bizimoduari eutsi ahal izateko.

Ustekabeko gertakari batek eta aldizka dirulaguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdiko egoera ekonomikoetara erantzun nahi zaie. Pertsonen bizitzan zehar, egoera jakin batean edo hainbat unetan gerta daitezke egoera horiek. Lehen mailako gabeziak edo eskasiak dakartzaten egoerak ekiditeko baliabide aringarri gisa erabiltzen dira GLLak.

Laguntza hauek emateari dagokionez, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 50.1 artikulua xedatzen duenez, GLLak emango dira, betiere, gizarte-zerbitzuek benetako premia-egoera dagoela egiaztatu eta gero, eta helburu horretarako kontsignatutako kreditua badago.

Era berean, eta abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, gure autonomia-erkidegoko udalei dagokie gizarte-larrialdietarako laguntzak onartzea, ukatzea eta ordaintzea. Horretarako, aldeztu behar da zein den laguntza horien urteko xedapen-muga, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzean laguntza horietara zuzendutako guztizko aurrekontu-esleipenaren barruan.

Bestalde, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 49. artikulua zerrendatzen ditu GLL gisa emandako laguntzen zenbatekoak finkatzeko aintzat hartu beharreko irizpideak. Zehazki, 1. paragrafoan jasotzen da inoiz ere gainditu ezin izango den kopuruetako bat, hau da, orokorrean aurreikusitako berariazko gastu bakoitzerako araudi bidez finkatutako gehieneko diru kopurua. Legezko aurreikuspen horretan oinarrituz, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denez, urtero zehaztuko dira, agindu baten bidez, berariazko gastu bakoitzari orokorrean gizarte-larrialdietarako laguntza gisa urtean gehienez emango zaizkion diru kopuruak.

Aurrekoa esanda, adierazi behar da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 3. zenbakian xedatzen dela gizarteratzea gizarte-babeseko hainbat sistema eta politika publikok partekatzen duten helburu bat dela; horien artean dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, lehen aipatutako helburua lortzen lagunduko duena, dagozkion xedeen eta egitekoen esparruan.

Ildo horretan, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen denez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta; sistema horren funtsezko helburua, besteak beste, da larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonalak eta familiarrak prebenitzea eta haiei erantzutea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13.1.n) artikulua araberan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkio, besteak beste, gizarte-ongizateari eta gizarte-zerbitzuari buruzko egitekoak.

Gauzak horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokion 21. zerbitzuaren 3123 aurrekontu-programan 37.000.000 euroko ordainketa-kreditu bat dago gizarte-larrialdietarako laguntzetarako, eta kreditu hori agindu hone-tan esleitzen da.

Gizarte-larrialdietarako laguntzen dekretu arautzaileak ezartzen du programara bideratutako urteko baliabideak udalei banatzeko eta transferitzeko prozedura. Baliabideen banaketa honako printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, urtero, GLLen zenbatekoak ordaintzeko beharrezko baliabide ekonomikoak egongo dira jasota.

b) Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordeak haiek aztertu ondoren, gizarte-zerbitzuen esku-mena daukan Eusko Jaurlaritzaren sailak urtero zehaztuko ditu irizpideak, beharrezko adierazleei begira batez ere, finkatzeko nola banatuko den Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua autonomia-erkidegoko lurralde historikoen eta udalerrien artean.

c) Erreferentziako irizpideak aplikatzeko, udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatu da, eta horren berri emango da EHAA urtero argitaratuko den agindu baten bitartez.

d) Erreferentziako irizpideen aplikazioa oinarri harturik, udal bakoitzari zein aurrekontu-muga dagokion zehaztu ondoren, zenbateko hori transferituko zaio udal bakoitzari. Transferentziak hiru hilean behin egingo dira.

e) Eusko Jaurlaritzan aurrekontu-ekitaldia ixten denean, udal bakoitzari dagozkion kopuru guztiak erregulatu beharko dira behin betiko, aurrekontu-ekitaldi horretan laguntzak emateko benetan hartutako ebazpenetan oinarrituta; horretarako, udalek bidalitako dokumentazioa hartuko da kontuan.

Prozedura hori aplikatuz, banaketarako irizpideak ezartzeko eta aurrekontu-mugen gehieneko zenbatekoak zehazteko aginduak argitaratu dira urtero.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak banatuko dizkie udalei, non eta haiek ez duten beste prozedura bat adostu dagokien foru-aldundiarekin edo mankomunitateen bidez, bat etorritik Gizarte-larrialdietarako laguntzen dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak gehitutako bigarren xedapen gehigarriarekin, zeinak aurreikusten baitu udalerrria baino lurralde-eremu handiagoko erakundeen partaidetza, eta ahalbidetzen baitu GLLak kudeatzen dituzten mankomunitateei eta foru-aldundiei laguntzak zuzenean ordaintzea, betiere udalek mankomunitateen bidez partekatutako kudeaketa-formulak erabiltzen badituzte edo aldundiei eskuordetu badiote prestazioa ematea.

Horregatik guztiagatik, eta Lan eta Enplegu Sailak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren esparruan, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak, gizarte-zerbitzuen esparruan, dituzten eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2023ko ekitaldirako gizarte-larrialdietarako laguntzetan (GLL) jasotako berariazko gastu bakoitzari orokorrean eman beharreko gehieneko zenbatekoak finkatzea eta laguntza horiek emateko esleitutako kredituak hainbat udalerriren artean banatzeko irizpideak ezartzea. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari urte honetan dagokion aurrekontu-muga zehazten da.

2. artikulua.– Urteko gehieneko zenbatekoak.

1.– 2023rako, honako hauek dira gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko zenbatekoak bizikidetzaren unitate bakoitzeko (aurrerantzean, BU), aurreko artikuluan aipatutako berariazko gastu bakoitzera bideratuak:

a) Alokairu-gastuak:

a.1.– Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakarrek etxebizitza koerrentatu edo azpi errentatu badu, hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezingo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, koerrentagatik edo azpi errentagatik ordaindutako prezioaren % 70.

a.2.– Etxebizitza koerrentamenduan hartuta badago edo bertan azpierreantamenduak badaude, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarreko araudian xedatutakoarekin koherente izanik, eta bizikidetzaren unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetzaren unitaterentzako hilean 150 euro emango da gehienez, eta bien artean ezingo dute gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80.

a.3.– Etxebizitzaren ostatu- edo apopilo-kontratupeko jendea badago, gehienez bi eskabide egin ahalko dira, lehen esandakoaren arabera, eta hilean 150 euroko laguntza emango da gehienez.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, hilean 300 euro emango da gehienez, muga bizikidetzaren unitateko. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, baizik eta establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera.

b) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik hilean 300 euro emango da gehienez, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

c) Elektrizitate-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eragindako energia-gastuengatik, urtean 1.500 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 750 euro gehienez.

d) «Linea zuriko» etxetresna elektrikoaren eta altzarien gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarrizko instalazioak egiteko gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BU baldin badira, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

f) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuengatik, urtean 900 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 450 euro gehienez. Kontzeptu honek honako gastu hauek barne hartzen ditu: ura, zaborrak, estolderia, ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak –ondasunak landa- zein hiri-eremukoak izan– eta jabekideen erkidegoaren kuartatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak ere.

g) Bizikidetzeta-unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarrizko premiei buruzko gastuengatik –esate baterako, jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek gastu horiek berdintzen ez dituztenean–, urtean 2.500 euro gehienez.

h) Aurretiko zorpetze-gastuengatik, urtean 3.000 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 1.500 euro gehienez.

Hargatik eragotzi gabe aurreko paragrafoan xedatutakoa, a), b), c), d), e), f) eta g) apartatuetan aipatutako kontzepturen batengatik aurretik ezarritako zorreatatik sortutako gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru kopuruak ezin izango dira handiagoak izan kasu bakoitzean aipatutako apartatuetan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko diru kopuruak baino.

2.– Nolanahi ere, artikuluko honetako 1. paragrafoko a), b), c), d), e) eta f) letretan aipatzen diren kontzeptuetan GLLak jasotzea ez da bateragarria Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzearekin (aurrerantzean, EPO), Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean (aurrerantzean, EPO) etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa ordaintzeko etxebizitzako gastuetarako prestazio ekonomikoarekin, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduan (Gaztelagun Programako etxebizitza alokatzeko laguntzak arautzen dituena) aurreikusitako laguntzekin eta 2023ko ekitaldian aurreikus daitezkeen ahultasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza librea alokatzeko beste laguntza batzuekin.

Artikulu honetako 1. paragrafoko a) apartatuan adierazitako gastuetarako GLLak jasotzea ere bateraezina da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (aurrerantzean, DSBE) jasotzearekin, edozein modalitatetan.

3.– Eskabide bakoitzari eslehi dakiokkeen zenbatekoa eskatzailearen baliabideen arabera eta bizikidetzako gainerako kideen diru-sarreraren arabera ezartzen den ehunekoa aplikatzearen emaitza izango da. Ehuneko hori artikuluko honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehieneko kopuruaren gainean aplikatuko da, edo benetako gastuaren kopuruaren gainean, kopuru hori kontzeptuko gehieneko kopurua baino txikiagoa bada, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko Dekretuaren 10.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. I. eranskinean jasota daude kalkulua egiteko behar diren bi taulak: populazio orokorrarena eta pentsiodunei aplikatzekoa.

4.– Kasu partikular bakoitzean aplika daitezkeen zenbatekoa udal eskudunak murriztu beharko du dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta; kasu horretan, eskatzaile guztien eskaerari modu berean erantzuteko udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboa murriztu beharko da kontzeptu bakoitzarengatik eman daitezkeen gehieneko zenbatekoa.

3. artikulua.– Eskaera-pilaketa eta GLLak eska ditzaketan BUen gehieneko kopurua.

Helbide berean bizi diren bi BUK eskatu ahalko dituzte gehienez Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak, GLLak barne. Beraz, zenbaketa hori egiteko, sistemako edozein prestazio kobratzeko eratutako BUak hartuko dira kontuan: DSBE, EPO edo GLLak berak, eta lehenetsuna izango dute eskubidezko prestazioak, DSBE eta EPO jasotzeko.

GLLen bi eskaera baino gehiago pilatuz gero, eskaeraren antzinasunaren arabera erantzungo zaie, gizarte-zerbitzuek txosten sozialaren bidez bestelako irizpiderik finkatu ezean.

4. artikulua.– Kredituak banatzeko irizpideak.

1.– Honako parametro hauen arabera finkatuko dira 2023an gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko esleitutako kredituak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean banatzeko irizpideak, zeinak beharrian-adierazleei jarraituz ezartzekoak baitira:

– 2022ko urriaren 31n, udalerrian zenbat unitatek jasotzen duten Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

– Diru Sarrera Bermatzeko Errenta edo bestelako prestaziorik jaso ez eta 2022ko urriaren 31ra arte udalerrian zenbat pertsonak eman duten izena Lanbiden.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 400 biztanle baino gutxiagoko udalerriei udalerrri horiei guztira legokiekeen zenbatekoaren batez bestekoaren zenbateko baliokidea bermatzen zaie gizarte-larrialdietarako laguntzen programa egikaritzeko.

5. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

4. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzak 2023ko ekitaldian gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko zenbat diru erabil dezakeen ezarri da aurrekontuetan. Agindu honen II. eranskinean ageri dira zenbatekoak.

6. artikulua.– Udalaz gaindiko bestelako erakundeen bidez banatzea.

Udalek foru-aldundira jo badute edo partzuergoen, mankomunitateen edo beste formula batzuen bidez kudeaketa partekatzeko bidea hartu badute gizarte-larrialdietarako laguntzetarako baliabide ekonomikoak banatzeko, Berdintasun, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazi beharko diote, udal bakoitzari esleitutako kopuruak udalaz gaindiko erakunde horietara transferitzeko.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko Dekretuaren 33. artikuluan aipatzen diren datuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema araututa eta funtzionamenduan ez dagoen artean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan ezarritako moduan bidaliko dira, zeinaren bidez argitaratu baitzen gizarte-larrialdietarako laguntzen eskabide-eredu berria eta arautu baitzen prestazio horiei buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzeko modua (2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.); bestela, aipatutako aginduan ezarritakoa ordezkatzeko duen euskarri informatiko estandarizatuaren bidez bidaliko dira, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak zehazten duen moduan, datuen edukiari buruz aipatutako 33. artikuluan eskatzen diren eskakizunak beteta, betiere.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 31.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2023ko otsailaren 10a, ostirala

I. ERANSKINA

URTEKO DIRU-SARREREN MUGA, BU-AREN NEURRIAREN ARABERA

Orokorra 2023			
Urteko diru-sarrereren muga, BUaren tamainaren arabera, eurotan			
Aplika daitekeen gehieneko %	BUko kide kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
	848,64	1.089,72	1.205,45
100	10.183,68	13.076,64	14.465,40
99	10.285,52	13.207,41	14.610,05
98	10.387,35	13.338,17	14.754,71
97	10.489,19	13.468,94	14.899,36
96	10.591,03	13.599,71	15.044,02
95	10.692,86	13.730,47	15.188,67
94	10.794,70	13.861,24	15.333,32
93	10.896,54	13.992,00	15.477,98
92	10.998,37	14.122,77	15.622,63
91	11.100,21	14.253,54	15.767,29
90	11.202,05	14.384,30	15.911,94
89	11.303,88	14.515,07	16.056,59
88	11.405,72	14.645,84	16.201,25
87	11.507,56	14.776,60	16.345,90
86	11.609,40	14.907,37	16.490,56
85	11.711,23	15.038,14	16.635,21
84	11.813,07	15.168,90	16.779,86
83	11.914,91	15.299,67	16.924,52
82	12.016,74	15.430,44	17.069,17
81	12.118,58	15.561,20	17.213,83
80	12.220,42	15.691,97	17.358,48
79	12.322,25	15.822,73	17.503,13
78	12.424,09	15.953,50	17.647,79
77	12.525,93	16.084,27	17.792,44
76	12.627,76	16.215,03	17.937,10
75	12.729,60	16.345,80	18.081,75
74	12.831,44	16.476,57	18.226,40
73	12.933,27	16.607,33	18.371,06
72	13.035,11	16.738,10	18.515,71
71	13.136,95	16.868,87	18.660,37
70	13.238,78	16.999,63	18.805,02
69	13.340,62	17.130,40	18.949,67
68	13.442,46	17.261,16	19.094,33
67	13.544,29	17.391,93	19.238,98
66	13.646,13	17.522,70	19.383,64
65	13.747,97	17.653,46	19.528,29
64	13.849,80	17.784,23	19.672,94
63	13.951,64	17.915,00	19.817,60
62	14.053,48	18.045,76	19.962,25
61	14.155,32	18.176,53	20.106,91
60	14.257,15	18.307,30	20.251,56
59	14.358,99	18.438,06	20.396,21

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Orokorra 2023			
Urteko diru-sarreraren muga, BUaren tamainaren arabera, eurotan			
Aplika daitekeen gehieneko %	BUko kide kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
	848,64	1.089,72	1.205,45
58	14.460,83	18.568,83	20.540,87
57	14.562,66	18.699,60	20.685,52
56	14.664,50	18.830,36	20.830,18
55	14.766,34	18.961,13	20.974,83
54	14.868,17	19.091,89	21.119,48
53	14.970,01	19.222,66	21.264,14
52	15.071,85	19.353,43	21.408,79
51	15.173,68	19.484,19	21.553,45
50	15.275,52	19.614,96	21.698,10

Pentsiodunak 2023			
Urteko diru-sarreraren muga, BUaren tamainaren arabera, eurotan			
Aplika daitekeen gehieneko %	BUko kide kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
	973,69	1.217,11	1.314,48
100	11.684,28	14.605,32	15.773,76
99	11.801,12	14.751,37	15.931,50
98	11.917,97	14.897,43	16.089,24
97	12.034,81	15.043,48	16.246,97
96	12.151,65	15.189,53	16.404,71
95	12.268,49	15.335,59	16.562,45
94	12.385,34	15.481,64	16.720,19
93	12.502,18	15.627,69	16.877,92
92	12.619,02	15.773,75	17.035,66
91	12.735,87	15.919,80	17.193,40
90	12.852,71	16.065,85	17.351,14
89	12.969,55	16.211,91	17.508,87
88	13.086,39	16.357,96	17.666,61
87	13.203,24	16.504,01	17.824,35
86	13.320,08	16.650,06	17.982,09
85	13.436,92	16.796,12	18.139,82
84	13.553,76	16.942,17	18.297,56
83	13.670,61	17.088,22	18.455,30
82	13.787,45	17.234,28	18.613,04
81	13.904,29	17.380,33	18.770,77
80	14.021,14	17.526,38	18.928,51
79	14.137,98	17.672,44	19.086,25
78	14.254,82	17.818,49	19.243,99
77	14.371,66	17.964,54	19.401,72
76	14.488,51	18.110,60	19.559,46
75	14.605,35	18.256,65	19.717,20
74	14.722,19	18.402,70	19.874,94
73	14.839,04	18.548,76	20.032,68
72	14.955,88	18.694,81	20.190,41
71	15.072,72	18.840,86	20.348,15

Pentsiodunak 2023			
Urteko diru-sarreraren muga, BUaren tamainaren arabera, eurotan			
Aplika daitekeen gehieneko %	BUko kide kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
	973,69	1.217,11	1.314,48
70	15.189,56	18.986,92	20.505,89
69	15.306,41	19.132,97	20.663,63
68	15.423,25	19.279,02	20.821,36
67	15.540,09	19.425,08	20.979,10
66	15.656,94	19.571,13	21.136,84
65	15.773,78	19.717,18	21.294,58
64	15.890,62	19.863,24	21.452,31
63	16.007,46	20.009,29	21.610,05
62	16.124,31	20.155,34	21.767,79
61	16.241,15	20.301,39	21.925,53
60	16.357,99	20.447,45	22.083,26
59	16.474,83	20.593,50	22.241,00
58	16.591,68	20.739,55	22.398,74
57	16.708,52	20.885,61	22.556,48
56	16.825,36	21.031,66	22.714,21
55	16.942,21	21.177,71	22.871,95
54	17.059,05	21.323,77	23.029,69
53	17.175,89	21.469,82	23.187,43
52	17.292,73	21.615,87	23.345,16
51	17.409,58	21.761,93	23.502,90
50	17.526,42	21.907,98	23.660,64

I. eranskineko taulen azalpena:

– Zutabe bakoitza bizikidetza-unitatearen kide kopuruari dagokio: bat, bi, eta hiru edo pertsona gehiago.

– Hiru zenbaki horietako bakoitzaren pean, diru-sarrerarik gabeko bizikidetza-unitate bati dagokion DSBERen hileko diru kopurua dago jasota.

– Hurrengo lerroan, DSBERen urteko diru kopurua.

– Hurrengo lerroetan, urteko zenbatekoaren kopuru progresiboa jasotzen da, % 101, % 102... % 150era arte. Azken horrek gizarte-larrialdiko laguntzak jasotzeko eskubidearen muga adierazten du.

– Azkenik, hasierako zutabeak egoera bakoitzean eman daitekeen GLLaren kontzeptu bakoitzari dagokion gehieneko zenbatekoaren portzentajea adierazten du.

2023ko otsailaren 10a, ostirala

II. ERANSKINA

2023RAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKO ETA UDAL
BAKOITZARI DAGOKION AURREKONTU-MUGA.

ARABA

Udalerría	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Agurain/Salvatierra	110.496
Alegria-Dulantzi	56.993
Amurrio	176.794
Añana	2.326
Aramaio	8.530
Armiñón	3.102
Arraia-Maeztu	4.652
Arratzua-Ubarrundia	5.816
Artziniega	32.955
Asparrena	25.976
Ayala/Aiara	34.118
Baños de Ebro / Mañueta	2.072
Barrundia	5.816
Berantevilla	3.877
Bernedo	5.040
Campezo/Kanpezu	13.570
Elburgo/Burgelu	3.877
Elciego	9.693
Elvillar/Bilar	3.102
Erriberagoitia / Ribera Alta	8.530
Harana / Valle de Arana	2.072
Iruña Oka / Iruña de Oca	51.952
Iruraiz-Gauna	3.489
Kripan	2.072
Kuartango	2.072
Labastida/Bastida	33.343
Lagrán	2.072
Laguardia	14.345
Lanciego/Lantziego	13.957
Lantarón	9.693
Lapuebla de Labarca	17.834
Laudio/Llodio	298.145
Legutio	35.281
Leza	2.714
Moreda de Álava / Moreda Araba	2.326
Navaridas	2.326
Okondo	15.896

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Udalerría	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Oyón-Oion	68.236
Peñacerrada-Urizaharra	2.072
Ribera Baja / Erribera Beitia	16.284
Samaniego	3.489
San Millan / Donemiliaga	5.428
Urkabustaiz	22.099
Valdegovía/Gaubea	16.671
Villabuena de Alava / Eskuernaga	2.072
Vitoria-Gasteiz	4.866.476
Yecora/Iekora	2.072
Zalduondo	2.072
Zambrana	8.917
Zigoitia	13.182
Zuia	17.447
Guztira, Araba	6.073.441

GIPUZKOA

Udalerría	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Abaltzisketa	2.072
Aduna	2.072
Aia	18.222
Aizarnazabal	11.243
Albiztur	2.072
Alegia	20.548
Alkiza	3.102
Altzaga	2.072
Altzo	3.102
Amezketá	9.305
Andoain	209.749
Anoeta	22.487
Antzuola	18.998
Arama	2.072
Aretxabaleta	63.971
Arrasate/Mondragon	312.103
Asteasu	10.468
Astigarraga	68.236
Ataun	12.019
Azkoitia	145.777
Azpeitia	182.997
Baliarrain	2.072
Beasain	145.777
Beizama	2.072

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Udalerría	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Belauntza	2.326
Berastegi	5.816
Bergara	164.387
Berrobi	6.591
Bidania-Goiatz	5.816
Deba	45.749
Donostia / San Sebastián	2.426.647
Eibar	485.019
Elduain	2.072
Elgeta	10.080
Elgoibar	150.817
Errenteria	616.839
Errezil	6.203
Eskoriatza	49.239
Ezkio-Itsaso	5.040
Gabiria	4.265
Gaintza	2.072
Gaztelu	2.072
Getaria	23.650
Hernani	295.819
Hernialde	2.326
Hondarribia	169.815
Ibarra	48.851
Idiazabal	14.733
Ikaztegieta	10.856
Irun	1.039.825
Irura	23.262
Itsasondo	9.305
Larraul	2.326
Lasarte-Oria	231.072
Lazkao	55.054
Leaburu	7.754
Legazpi	90.723
Legorreta	15.896
Leintz-Gatzaga	2.072
Lezo	72.889
Lizartza	6.203
Mendaro	28.690
Mutiloa	2.072
Mutriku	58.543
Oiartzun	93.825
Olaberria	9.305

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Udalerria	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Oñati	100.416
Ordizia	150.430
Orendain	2.072
Orexa	2.072
Orio	64.359
Ormaiztegi	10.080
Pasaia	321.408
Segura	7.754
Soraluze-Placencia de las Armas	75.603
Tolosa	247.356
Urnietta	70.562
Urretxu	80.643
Usurbil	61.257
Villabona	88.397
Zaldibia	15.121
Zarautz	206.647
Zegama	11.631
Zerain	2.072
Zestoa	51.952
Zizurkil	30.629
Zumaia	93.049
Zumarraga	164.775
Guztira, Gipuzkoa	9.436.809

BIZKAIA

Udalerria	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Abadiño	110.884
Abanto y Ciervana-Abanto Zierbena	181.446
Ajangiz	2.326
Alonsotegi	73.276
Amorebieta-Etxano	246.581
Amoroto	2.714
Arakaldo	2.072
Arantzazu	4.265
Areatza	18.610
Arrankudiaga	12.407
Arratzu	2.072
Arrieta	5.428
Arrigorriaga	224.869
Artea	8.530
Artzentales	14.733
Atxondo	14.733

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Udalerrria	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Aulesti	5.040
Bakio	43.811
Balmaseda	185.711
Barakaldo	1.952.096
Barrika	26.364
Basauri	805.651
Bedia	15.896
Berango	92.274
Bermeo	300.472
Berriatua	10.856
Berriz	54.666
Bilbao	7.969.668
Busturia	25.976
Derio	77.153
Dima	17.059
Durango	411.743
Ea	9.693
Elantxobe	6.591
Elorrio	68.236
Erandio	435.393
Ereño	3.102
Ermua	265.966
Errigoiti	7.754
Etxebarri	147.328
Etxebarria	8.917
Forua	8.142
Fruiz	8.142
Galdakao	354.750
Galdames	12.794
Gamiz-Fika	14.345
Garai	2.072
Gatika	16.671
Gautegiz Arteaga	7.366
Gernika-Lumo	231.848
Getxo	1.053.007
Gizaburuaga	2.072
Gordexola	21.711
Gorliz	90.335
Güeñes	134.534
Ibarrangelu	10.468
Igorre	69.787
Ispaster	5.816

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Udalerría	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Iurreta	59.319
Izurtza	2.326
Karrantza Harana / Valle de Carranza	51.952
Kortezubi	3.102
Lanestosa	5.816
Larrabetzu	22.099
Laukiz	11.631
Leioa	506.343
Lekeitio	74.052
Lemoa	67.461
Lemoiz	19.773
Lezama	27.139
Loiu	22.875
Mallabia	9.693
Mañaria	4.265
Markina-Xemein	52.340
Maruri - Jatabe	9.693
Mendata	3.877
Mendexa	2.714
Meñaka	4.265
Morga	5.428
Mundaka	20.161
Mungia	272.169
Munitibar -Arbatzegi Gerrikaitz-	6.203
Murueta	2.072
Muskiz	127.167
Muxika	13.957
Nabarniz	3.102
Ondarroa	127.555
Orozko	41.872
Ortuella	185.323
Otxandio	16.671
Plentzia	70.175
Portugalete	882.417
Santurtzi	1.069.291
Sestao	712.214
Sondika	58.543
Sopelana	195.791
Sopuerta	36.444
Sukarrieta	3.877
Trucios-Turtzioz	12.019
Ubide	2.072

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Udalerría	2023ko diru- esleipena (eurotan)
Ugao-Miraballes	65.134
Urduliz	63.971
Urduña/Orduña	85.683
Valle de Trapaga-Trapagaran	207.422
Zaldibar	45.749
Zalla	156.245
Zamudio	43.811
Zaratamo	28.302
Zeanuri	9.693
Zeberio	15.508
Zierbena	23.262
Ziortza-Bolibar	3.490
Guztira, Bizkaia	21.489.750

EAE

EAE Guztira	37.000.000
-------------	------------